

**OMNIPAGE PRO 12.0-RAKO**

**EUSKARAZKO OCRa 1.1**


## EDUKIEN AURKIBIDEA

<a href="#"><u>1. Instalazioa</u></a> .....	1
<a href="#"><u>2. Erabilera</u></a> .....	3
<a href="#"><u>3. Desinstalazioa</u></a> .....	5


## 1. Instalazioa

Omnipage Pro 12.0-rako Euskarazko OCRa 1.1 instalatzeko, nahikoa da *euskocr1.1\_op12.exe* egikaritzea eta pantailan agertzen diren pausuak jarraitzea:


- 1) *Bai* sakatu Euskarazko OCRa 1.1 instalatzeko:




- 2) *Hurrengoa* sakatu instalazioarekin jarraitzeko:




- 3) Beharrezkoa da pausu honetan *OmniPage Pro 12.0* programa instalaturik dagoen karpeta aukeratzea, bestela plug-in honek ez du funtzionatuko (defektuz C:\Archivos de programa\ScanSoft\OmniPagePro12.0 karpeta agertuko da pantailan, aldatu egokia ez bada).



- 4) Ondorengo pantailako datuak erreparatu *Instalatu* botoia sakatu baino lehen:




5) *Bukatu* botoia sakatu instalazioarekin amaitzeko:




Programa ongi instalatu den jakiteko, Omnipage Pro 12.0 ireki eta jarraitu ondorengo puntuan (2.Erabileratalean) azaltzen diren urratsak.

## 2. Erabilera


1) Behin Omnipage Pro 12.0 irekita, *Tresnak* menuko *Aukerak* → *OCR* sakatu:



- 2) Euskarazko OCR bertsioa ongi instalatua izan bada, hizkuntzen zerrendan *Euskara* hizkuntzaren ondoan, liburuxka bat aterako da (horrela ez bada, instalazioan arazoak egon direnaren seinale da):



- 3) Dena ongi joan bada, nahikoa izango da euskarazko testu bat ireki, *Euskara* hizkuntza aukeratu eta OCRa martxan jartzea. Testuan akatsak aurkituko balira, euskarazko proposamenak agertuko dira orain.



### 3. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Omnipage Pro 12.0 programatik kendu ahal izateko, hauxe da egin behar dena:

- 1) *Hasi* menutik *Ezarpenak* → *Kontrol-panela* hautatu.
- 2) *Gehitu/Kendu programak* aukera hautatu.
- 3) Instalaturik dauden programen arten, aukeratu *Euskarazko OCRa 1.1* programa eta kendu zerrendatik.
- 4) Hori eginda, *Euskarazko OCRa 1.1* gure sistematik ezabatuko da.